

Egiak esatera etorri naiz gaurkoan ere. Ez da lehen aldia. Horrelaxe hasi izan det inoiz gaurkoaren tankerako eztabaidaren bat.

EGIAK.

Gipuzkoako Foru Gobernuak 2025erako Aurrekontu Proposamen ONA, OSO ONA aurkeztu du. Gipuzkoarren ONGIZATE INTEGRALAN aurrera egiteko pausu egokiak eta eraginkorrak planteatzen dituen.

1.218 milioi euroko proiektua, gipuzkoar guztien ongizatean bidea egiteko: zahar eta gazte, langile, haur, ikasle eta jubilatu, gizon edo emakume, bertan jaioetako zein kanpotik etorritako.

Eider Mendoza, Diputatu Nagusiak, eta bere Gobernu kideek Gipuzkoarekin eta gipuzkoar guzti-guztiekin duten konpromisoaren adierazle den Aurrekontu Proiektu batez ari gera.

Eusko Alderdi Jeltzaleak Gipuzkoarekin eta gipuzkoar guzti-guztiekin duen errotikako konpromiso politikoarekin bat datorren Aurrekontu bati buruz ari gera.

77,4 milioi **Lurraldeko ekonomia ehuna** sustatzera bideratzen ditu. Eusko Alderdi Jeltzaleak argi dauka aberastasuna banatu ahal izateko, aberastasuna **sortu** egin behar dela. Hori, gure politika guztiaren oinarrian dagoen printzipioa da. Sortzen ez den lan eta diru-baliabiderik ezin delako banatu.

Beste 256 milioi euro **inbertsioetara** bideratzen ditu –errepideak egokitzeko eta hauei segurtasuna emateko, Zarautzko herriak eskatzen duen sahiesbidea gauzatzeko edo Gaintxurizketako egoera hobetzeko-

Eta milioi horietatik, 62, Gipuzkoaren etorkizunaren garapenean giltzarri diren proiektu berritzaileetara zuzendutakoak dira. Punta-

puntako proiektuak. Berrikuntza teknologikoa garatzen dutenak; gizartearen zahartzeari erantzutea eta laneratzeko zailtasunak dituztenak laguntzea helburu dutenak; baso kudeaketa jasangarria, kultura, euskara, eta parte-hartze deliberatiboa ardatz duten proiektu berritzaileak.

Gure gizarte politikak erreferentzialak dira; gure garraio publikoa erreferentziala da; kobernanta politikak, aitzindariak. Euskara berrindartzeko Harigune egitasmoa, aitzindaria. Zaintza ekosistema lokalak, aitzindariak. Bakardadearen aurkako neurriak, aitzindariak. Basotik, basoen kudeaketa publikorako fundazioa, berritzailea. Berrerabilpenerako martxan jarriko den zentru berria, berritzailea. Baserritar Misto Profesionalaren programa, berritzailea. Mugi poloa, teknologian erreferentziala. Badalab, berritzailea, Arantzazu-lab, berritzailea... Hainbeste gauza berritzaileak egiten dira Gipuzkoako Foru Aldunditik!

Eta azkeneko utzi det lehentasunen arteko lehena: **Gipuzkoako pertsona guztien zaintza eta babesa**. Helburu horretarako, 2025eko Aurrekontuaren ahailekin ekonomikoa inoizko handiena da: 538 milioi euro.

Horiek guztiak, pertsona eta familia zaurgarrienei bideratuak, Arreta Eredu berri eta berritzaile bat lantzeko pertsona erdigunean jartzen duen ereduaren bitartez.

Gure helburua, Ahaldu Nagusiarena, Foru Gobernuarena, -eta jakina, Eusko Alderdi Jeltzalearena- hauxe delako: Gipuzkoa gero eta Lurralde berdinzaleagoa izatea. Geroz eta gehiago. Eta, hori esaten degunean, kontutan hartu behar da, Europako herrialde garatuenen artean, jada, punta-puntan gaudela gizarte desberdinkeria maila txikienera Lurralde bezala.

Baina... batzuentzat, dena alferrik da. EH Bildurentzat, dena alferrik da. Eta asko ez da inoiz aski. EH Bildu autoerreferentziala da. Ezker Abertzalea beti izan den bezala: beraiek... edo ezer ez.

EH Bilduk gauza bakar bat egiten daki: berkalkulatzeko. Eten gabe, berkalkulatu eta berkalkulatu. Errenta gehien ze kontuk ematen dion berkalkulatzeko egunero-egunero.

EH Bildu, recalculando sin parar el relato que más renta para sus intereses partidistas.

Bada egia beste hau ere: Gipuzkoako Foru Aldundiarena gutxiengoan dagoen gobernu da. Eta, beraz, gutxienez, oposizioko talderen baten beharra du Aurrekontuak aurrera ateratzeko.

Iaz, Mendoza Diputatu Nagusia, zinez saiatu zen. Baina ez zuen lortu. Iaz, Gipuzkoako oposizioko hiru taldeak ezezkoan jarri ziren. Handienetik txikienera. Hiruak. Ez “bat eginez”, ez degu hori esango, baina bai, ezezkoan “bat etorri”.

Bat, ezezkoan.

Ezingo degu esan gauza berria izan zenik; izan ere, aurreko zortzi urtetan ere, EH Bilduren posizioa EZ eta EZ jardutea izan zelako. Ezezkoaren tradizio sekularra.

Baina gauzak aldatu egiten dira, ezta?

Eta aldatu egin dira. Konfrontaziotik errenta politikoa atera nahian ibiltzetik, EH Bilduko estrategek “bestelako itxurak” egitea hobeto ateratzen zaiela erabakitzen duten unean aldatu dira gauzak, hain zuzen.

Eta horixe da azken boladatxo honetan gertatzen ari dena: EH Bilduko “estrategian adituek” erabaki dute erakundeetan boterea lortu ahal izateko **erdigunea konkistatu behar dela**.

Eta hori nola lortzen da ba? Ba **PNVren betiko tankera kopiatuz**.

Eta, *kao*, zer gertatzen da? Ba “**zentralitatea**” lortzeko **super-gaizki geratzen dela konfrontazio hutsa**. Oso gaizki geratzen da EZ eta EZ ibiltzea.

Beraz, erabaki dute akordiorako borondatea, borondate zintzoa, egiazko borondatea, inoiz ikusi gabekoa... proiektatzen duen **errelato berri bat** jarri behar dela martxan.

Eta akordioetarako jarrera prestuaren itxura emateko, negoziaketei ezin zaie muzin egin eta, gurean, Eider Mendoza Diputatu Nagusiak –honek bai, benetan, benetako akordio borondatearekin-, eskatutako bilera andana batean bueltaka ibili beharra dagoela eta bilera horietan, proposamenak eta kontraproposamenak egin beharra.

Horrelaxe izan zen iaz, EH Bilduren esanetan “inolako marra gorriarik ez” omen zegoen hartan... azken momentuan EH Bildu patrikatik ateratako “**marra gorriekin**” agertu zen arte.

Eta bitartean zer gertatzen ari zen? Ba **bitartean, EH Bildu, BAI eta BAI Madrilen eta BAI eta BAI Nafarroan**. Han, eta han, Bai eta BAI. Aldiz hemen, Eusko Alderdi Jeltzaleari EZ eta EZ. EZ eta EZ Legebiltzarrean, EZ eta EZ Araban, EZ eta EZ Gipuzkoan.

Hori guztia horrela izan da, eta egitate frogatua da.

Baina estrategiak beti hobetu daitezke eta, aurtengoan, EH **Bilduk are gehiago findu eta zorroztu du bere estrategia**.

Askoz gehiago landu du, hainbeste... ezen ez baita erraza ... erraz azaltzea.

Esan zuten **Nafarroan “gauzak beste era batera”** egiten direla. Han, Chivitek –hemen PNVk ez bezela- EH Bilduri aurrekontua aurkeztu aurretik aukera ematen diola bere proposamenak eta bere ikuspegia proiektuan bertan txertatzeko eta hemen ez dela horrelakorik egiten.

Ez dute esan –ez dute esaten- Gipuzkoako Diputatu Nagusiak **hirurei eskaini ziela Aurrekontu Proiektuan bertan izan zitzaketen ideiak txertatzeko aukera**. Eta ez dute esan hiruretatik bakarrik ez duela iradokizun edo eskakizunik egin: EH Bilduk.

Hori ez dute esaten baina nik bai, nik esan egiten det.

Bitarte honetan, EH Bilduk sarri askotan agertu du publikoki negoziatzeko borondatea. Behin eta berriz, behin eta berriz, Eider Mendozak deitutako bi dozena t’erdi bilera horietan parte hartzen zuen bitartean.

Oposizioko beste bi alderdiekin batera egin duten ariketa. Hiruek.

Eta horrela, oposizioko hiru alderdien proposamenak jasota, aztertuta, eta ikusita elkarren arteko kontraesanik gabe gai askotan bateragarriak zirela, Foru Gobernuak, **hirurei proposamen bateratua luzatu zien**. Guztira, 61 milioi euro biltzen zituen proposamena. Eta proposamen guztien artean, asko, EH Bilduri zuzenean bideratutakoak.

Baina, nonbait, EH Bilduri ez zitzaion gustatu proposamen bateratua. Ez zitzaion gustatu “oposizio guztia berdin tratatu izana, ordezkaritza-maila hain ezberdina izanik”. Eta hauxe da eztabaidatzen ari garen Osotasunezko Zuzenketak dituen bi aitzakietako bat.

Beste argudioa da, jakina, “egiturazko aldaketak” behar dituela EH Bilduri “egokia iruditzen ez zaion” aurrekontu batek.

Nafarroan, urtez urte, aurretik eta ondoren sartutako partida guzti-guztiak, kontutan hartzen dituen **%0,20ko tratuak “egiturazko aldaketak” ekarriko balitu bezala. Edo Arabako akordioaren 10 milioiek Aurrekontuaren egitura aldatuko balute bezala: -jai!, eta jai!-**

Gure ustez, zer da benetan gertatua eta egia?

Ba, hauxe: Gipuzkoako Alderdi Popularrak, aurtengoan, bere burua plazaren erdi-erdian jartzea erabaki du. Horrela egiteko erabakia hartua zuen lehendik ere. Zergatik esaten det hori?, ba Politika Orokorreko Plenotik hasita, Alderdi Popularrak behin baino gehiagotan azaldu izan duelako aurtengo aurrekontuetan erabakiorra izateko bere asmoa.

Eta PPren jarrera, guk ulertu bezala ulertu du EH Bilduk.

Horregatik, Alderdi Popularraren asmoa antzemanda, EH Bilduk lehen aipatu deten estrategia berri horren baitan, negoziaketa itxurakeriatan ibili da, zain-zain ea PPk noiz azalduko publikoki bere asmoa.

Eta PPk bere baiezkua adierazi orduko, aktibatu da EH Bilduren estrategia mediatiko guztia.

En el momento en que el PP expresó públicamente (e inteligentemente, diría yo) su voluntad de apoyar el presupuesto, -sin pedir exclusividades, por cierto– se han precipitado los hechos.

Cronología cierta de esos hechos:

- Como EH Bildu está esperando que se produzca el movimiento del PP, el **25 de noviembre** Otegi dice: “EH Bildu

*respetará lo que decidan –se refiere a Diputación- **sin perder la sonrisa**. Pero tienen que elegir, es con EH Bildu o con el PP”. Y tanto que sin perder la sonrisa: porque EH Bildu está esperando-esperando que se produzca el elemento que desencadenará su estrategia centrada en Gipuzkoa y, en concreto, en el PNV de Gipuzkoa.*

- *El **27 de noviembre**, el Gobierno Foral llama, uno tras otro, por enésima vez, a los tres partidos de la oposición para plantearles la propuesta común que responde a las posiciones, que se consideran perfectamente compatibles entre sí, de todos ellos.*
- *El **28 de noviembre**, sin esperar más, el PP, repito, inteligentemente, anuncia: “votaremos sí”.*
- *A las dos horas de la comparecencia del PP, EH Bildu llama una rueda de prensa y dice: “**pues nosotros, no**”. Y a pesar de que sabe muy bien que el Gobierno Foral ha mantenido **una negociación abierta desde el principio, sin preferencias, sin exclusiones y sin vetos**, Maialen Iriarte dice: “el Gobierno foral se ha decantado por el PP y le ha faltado voluntad para negociar con EH Bildu”*
- *Al día siguiente, **29**, EH Bildu presenta la enmienda a la totalidad que hoy debatimos y, al mismo tiempo, Otxandiano anuncia que no presentará enmienda a la totalidad a los presupuestos del Gobierno Vasco porque, por supuesto, su voluntad de negociación es “muy sincera”.*
- *Al mismo tiempo, se activa la negociación que estaba empantanada en Araba. Esa que acaba de culminar hacer cuatro días en acuerdo.*
- ***Conclusión:** EH Bildu ha esperado al PP para alimentar su relato, ese que dice que el PNV de Gipuzkoa prefiere al PP y deja de lado a EH Bildu... mientras EH Bildu aparenta tener vocación*

de acuerdo universal y “demuestra” en Araba que “cuando hay voluntad” se puede llegar a acuerdos con EH Bildu, pero que, en Gipuzkoa, no queremos.

Kontakizuna eta kontua.

EH Bilduk hilabete hauetan guztietan bazekien Eider Mendoza benetan ari zela, borondate onez.

EH Bilduk beti jakin du, akordiorako bere borondatea egiazkoa izan balitz, akordioa lortu ahal izango zuela Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Berez, EH Bilduk negoziaketaren jokoan jarraitu du, Eider Mendozak espresuki horrela eskatuta, nahiz eta Osotasunezko Zuzenketa aurkeztua izan eta eta ezezkoa iragarrita.

Hori horrela da. Eta horren-horrelaxe baita, ezen EH Bilduk astelehenean bidali baitio azken kontraproposamena Diputatu Nagusiari. Dokumentu horretan, EH Bilduk nabarmen leundu ditu bere “marra gorriak”. Ez du gizarte politiken doakotasunik eskatu, ez du erreferentziala den Gipuzkoako zaintza ereduaren publikaziorik eskatu. Gauza asko eskatu ditu, bai, baina foru gobernua saiatu da eskatutakoak onartzen.

Eta Eider Mendozak, horietan guztietan adostasunera iristeko moduko proposamena prestatzen du. Eta zer egin du Bilduk? Beraiek eskatukoei ezetz esan! Horixe egin du:

EH Bilduk eskatu bezala, zaintzako zerbitzu publikoen kontratazioan, klausula sozialen bitartez, irabazi asmorik gabeko elkarteak kontratatzeko konpromisoa diputatu nagusiak. Bilduk, orain, ezetz.

Hirugarren sektore sozialaren eskutik, datozen bi urtetan, egoitza berriak eraikitzeko 25 milioiri baiezkoa diputatu nagusiak, eta Bilduk ezetz.

EH Bilduk eskatu bezala, mendekotasun balorazioen itxaron zerrendak 45 egunetik hilabetera jaisteko hitza ematen du diputatu nagusiak. Baina Bilduk, ezetz (*portzierto*, Nafarroan 3 hilabetera jaistearekin konformatu da EH Bildu). Eta EH Bilduk eskatu bezala, zerbitzua publikatzeko 3 milioiko eskaintzari ere, Bilduk orain, ezetz.

EH Bilduk eskatutakoari erantzunez, zaintza zerbitzuengatik ahalmen ekonomiko txikiena duten erabiltzaileen kuotak murrizteko proposatutako 4 milioiei ere, Bilduk, ezetz.

EH Bilduk eskatuta, sektoreko langileen profesionaltasunean eta zaintzaileak gaitzen are gehiago inplikatzeko 3 milioi gehitu eta, EH Bilduk, ezetz.

Udalentzat tokiko zaintza ekosistemak indartzeko eta etxez etxerako zerbitzuak indartzeko, 4 milioiko funts bati, EH Bilduk, ezetz. Eta Gipuzkoako udal txikietan gizarte zerbitzuak handitzeko 2 milioiri, Bilduk, ezetz.

EH Bilduk eskatu bezala, energia berriztagarrien prozesu deliberatiboak gauzatzeko konpromisoari eta horretarako milioi bat jartzeari, EH Bilduk, ezetz.

EH Bilduk eskatu bezala, Eskualdeko garapen-agentzietan trantsizio ekologia landu dezaten beste 250.000 eurori, EH Bilduk, ezetz.

EH Bilduk eskatu bezala, energia komunitateentzat beste milioi erdi bat jartzeari, Bilduk, ezetz.

Lurraldebuseko zerbitzuak handitzeko eta hobetzeko eta flota berritzeko eta sektoreari trantsizio ekologikoan laguntzeko eta bidegorriak sustatzeko ia 14 milioi bideratzeari, orain EH Bilduk ezetz.

Industria, enpresa txikiak, ikerketa eta garapena eta garapen agentzietarako beste milioi batetik gorako partida bat jartzeari, Bilduk, ezetz.

Eta euskara arloan ere berdin: EH Bilduk eskatu euskara eta euskarazko aisialdia lantzeko eta UEMArentzako diru gehiago, Eider Mendoza diputatu nagusiak beste 520.000 euro onartu, eta EH Bilduk, ezetz.

Horiek denak dira Foru Gobernuak aste honetan eskainitakoak EH Bilduren azken eskariei erantzunez.

Horiek guztiak, EH Bilduk nahi izan ez dituenak.

Azkenean, Otegik aurreko hartan iragarri bezala, Bilduk aurtengo “marra gorria” atera duelako: PPren baieztokarekin, EH Bildurik, ez. Aurreko bilera guztietan ez bezala, azken momentuko eskusibotasun-esijentzia. **Aurtengo marra gorria: eskusibotasuna eta betoa.**

“Irribarre batekin”, jakina. Azken hilabete hauetan horrexen zain egon zarete eta.

Jakin ezazue, zuek eta entzun gainerako guztiek: Gipuzkoako PNVk eta **Eider Mendozak EH Bildurekin aurrekontu akordiora iristeko ERABATEKO BORONDATE ZINTZOA IZAN DUELA AZKEN-AZKEN MINUTURAINO.**

Portzieto, Podemosekin izan duen (*ez dakit azken erantzunik izan den Podemosen partetik, baina ez badu izan, izaten jarraitzen duen*) bezala.

Eta EH Bilduk, borondate zintzo horrekin *malamente* jolasean ibili ondoren, esan dio ezetz. EH Bilduren asmoa, lehen eta orain, bakarra izan delako: Gipuzkoaren PNVren kontrako kontaketa elikatzea.

Irribarre ziniko batez mozorrotuta.

¿Cuál es la conclusión? La conclusión es que EH Bildu siempre ha sabido, del mismo modo que yo siempre he sabido, que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tenido, siempre, voluntad de acuerdo con todos.

Y, por supuesto, con EH Bildu.

*La conclusión es también, que la estrategia de negociar y defender unos muy buenos presupuestos públicos para Gipuzkoa de la Diputada General ha sido acertada. **Porque, por desgracia, las exclusividades en la negociación solo se pueden plantear cuando hay un mínimo de confianza con alguien. Y, desgraciadamente, una vez más, y de manera más cínica que nunca, este año ha vuelto a quedar en evidencia que en Gipuzkoa no nos podemos fiar de EH Bildu.***

Hainbeste kopiatzen diguzue, non gure goiburuak ere zuenak direla sinetsita baitzabiltzate. Adibidez, “aurrena aberria eta gero, alderdia” delakoa. Bistakoa da, ezetz, EH Bildurentzat, aurrena EH Bildu, gero, EH Bildu eta hurrena ere, EH Bildu.

Boterearen lehian ari zarete eta ez beste ezertan. Eusko Alderdi Jeltzalea higitu beharra daukazue horretarako eta, oso bereziki, Gipuzkoako Eusko Alderdi Jeltzalea.

Eta aurten 10 urte katean, elkarren segidan, hemengo aurrekontuei ezetz.

Gipuzkoako bertsolari txapelketa gainean dugun honetan, bururatu zait EH Bildurena “hamarrekoa” dela, baina ez hamarreko handia edo hamarreko txikia. EH Bilduren Hamarrekoa motza da. Hamarreko motza.

Ezetzaren moztasuna daukazue, gipuzkoarrentzat eta Euskadiko Erkidego honentzat EZ eta KONTRA, EAJ gidari denean.

Horiek horrela, nola fidatu EH Bildurekin? Orain ere aukera galdu duzue Eusko Alderdi Jeltzalearen konfiantza irabazteko. Zoritxarrez.

Eusko Alderdi Jeltzaleak ez du onartuko herria nahasteko jokorik, ezkerreko populismoa kutsua duen azpilanik. Demokrazian botoak ezin dira nolanahi irabazi. Eta hori bada zuen jokoa, guk aurre egingo dizuegu, lehen ere aurre egin genizuen bezala. Nahikoa da eta.